



## ETXEBARRIKO UDAL KIROL INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDUA ETA ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA EGIN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA

Etxebarriko udal kirol instalazio berriak datorren urtean zabalduko dira, beraz beharrezkoa da instalazio horien funtzionamendua eta erabilera arautuko dituen udal ordenantza egitea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 133. artikulua xedatzen du:

*Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:*

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Hori horrela, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, Etxebarriko udal kirol instalazioen funtzionamendu eta erabileraren etorkizuneko araudiari buruz duten IRITZIA helarazi dezakete 2018ko urriaren 18tik 2018ko azaroaren 5era arte (biak barne) honako helbide elektronikoaren bidez: [gbernando.etxebarria@bizkaia.org](mailto:gbernando.etxebarria@bizkaia.org) edo udaletxean aurkeztutako idatzi bidez.

Etxebarria, 2018ko urriaren 18a

Alkatea  
-Jesus Iriondo Lejardi-

